

4. GAIA: IKUS KULTURAREN AZTERKETA ETA INTERPRETAZIOA

Ikus mezuak aztertzeke era desberdinak

Ikus kultura osatzen duten ikus mezu mota desberdinak aztertzeke era desberdinak ditugu. Ikus mezu bati begiratzen diogunean ikusten ari garenez ohartzen garela uste dugu gehienetan. Baina, ikus mezu horren irudiak ematen duen informazioaren zati handi bat ez da gure pertzepzio kontzientearen bidez prozesatzen, baimena eskatu gabe sartzen da gure pertzepzio oharkabeen ganbaran.

Kontzeptuak ulertu eta mamurtu egin behar dira gure biltegi mentalaren parte izan baino lehen. Aitzitik, pertzepzio-sentsazioak, inolako baldintzarik gabe, alde aurreko buru-eragiketarik egin gabe barneratzen ditugu. Geure ustez, garrantzitsua da horretaz jabetzea eta ikus mezuak aztertzeke eta hobeto ulertzeke baliabide teoriko-praktikoak eskuratzea. Ikus mezuen azterketak eta interpretazioak gure gizartean zein beste gizartetan ekoizten den ikus kultura ulertzeke eta beraren gaineko interpretazio kritikoak egin ahal izateko aukera emango digute.

Asko izan dira ikus mezuen azterketaz kezkatu diren autoreak eta proposamen desberdinak planteatu dituzte batez ere XX. mendean zehar¹. Nahiz eta termino desberdinak erabili, proposamen guztietan hiru ikuspuntu edo aztertze-maila islatzen direla esan dezakegu: teknika maila, denotazio maila eta konnotazio maila.

Teknika maila

Ikus mezu baten azterketari hasiera emateko, erabili den ekoizteke teknika edo tekniken konbinazioa aztertu behar da. Teknika bakoitzak eta teknika hori erabiltzeke prozedura zehatzek eragina zuzena dute ikus mezuaren antolaketan. Askotan, ikus mezuak bereizteke kontuan hartzen dugun faktorea teknika da: marrazkia, argazkia, pintura, eskultura, kartela, filma, bideoa, ikus mezu elektronikoa eta abarreko terminoak erabiltzen ditugunean, ikus mezu horiek ekoizteke erabili den teknika aipatzen ari gara.

Ikus mezuaren *ezaugarri materialak* ere kontuan hartzen dira. Adibidez, bi dimentsioko ikus mezuetan, erabilitako paper mota eta gainazalaren ezaugarriak aztertzen dira: gainazalak materiazko ehundurak dituen ala laua den, gainazalean gertatutako aldaketaren bat dagoen (urradurak edo marrazkatuak) eta, aztarna eskuzkoak ala mekanikoak (pintzelkadak, trazuak, bilbe inprimatuak...) diren

¹ Ikus mezuak aztertzeke zenbait proposamen:

Manuel Alonso eta Luis Matilla

(1980). *Imágenes en libertad. Comunicación visual para la escuela activa*. Madril: Nuestra Cultura.

1. Adierazpenaren balorazioa: objektuen identifikazioa denotazio mailan eta konnotazio mailan.
2. Alderdi materialen arteko erlazioa denotazio mailan.
3. Alderdi ideologikoen arteko erlazioa.
4. Alderdi material eta ideologikoen arteko erlazioa.
5. Diseinuaren balorazioa alde aurreko helburu baten zehazpen plastiko gisa.

(1990). *Imágenes en acción: análisis y práctica de la expresión audiovisual en la escuela activa*. Madril: Akal.

1. Deskribapena eta azterketa.
2. Kode espaziala.
3. Keinuen kodea.
4. Kode eszenografikoa.
5. Kode grafikoak.
6. Argiaren kodea.
7. Kode sinbolikoa.
8. Erlazioak.
9. Sintesia.

Umberto Eco (1976). *Tratado de semiótica general*. Bartzelona: Blume.

1. Hitzeko erregistroa: denotazio maila / konnotazio maila.
2. Erregistro ikonikoa: denotazio maila / konnotazio maila.
3. Bi erregistroen arteko erlazioak.

Nicos Hadjinicolaou (1975). *Historia del arte y lucha de clases*. Mexiko: Siglo XXI.

1. Artelanaren kokapen historikoa.
2. Artelanaren adierazpenaren deskribapena.
3. Artelanaren eta bere garaiko abagune ideologikoaren arteko erlazioa.
4. Artelanaren ideologiaren azalpena: irudien bidezko ideologia kritiko ala positibo bezala identifikatzea.

Erwin Panofsky (1982). *Estudios sobre iconología*. Madril: Alianza Universidad.

1. Ikonografia aurreko deskribapena.
2. Análisi ikonografikoa.
3. Interpretazio ikonologikoa.

behatzen da.

Denotazio maila

Denotazio hitza hizkuntzalaritzatik datorren terminoa da eta oinarrizko mintzaira definitzeko balio du, adierazpenaren alderik oinarrizkoena da, adierazle baten esangura objektiboa. Denotazioa adierazlearen eta horrek ordezkatzeko duen gauzaren arteko erlazio unibokoa da, adibidez, etxe baten argazkiak bere erreferentia den etxe erreala denotatuko du.

Azterketaren maila honetan, beraz, ikus mezuaren deskribapen objektiboa egiten da, hau da, begien bidez ikusten duguna azaltzen da. Eginkizun horretan aztertzailearen behatzeko gaitasunak berebiziko garrantzia hartzen du.

Deskribapen objektibo hori egiten hasteko beharrezko izango da behatzen ari garen ikus mezu mota identifikatzea: *bi* dimentsiokoa (altuera eta zabalera dituena) ala *hiru dimentsiokoa* (altuera, zabalera eta sakonera dituena); *irudizkoa* (irudi soila), *hitz-irudizkoa* (irudiz eta testuz osatuta dagoena) ala *ikus-entzunezkoa* (irudia, testua eta soinua uztartzen dituena); *finkoa* (adibidez, eskultura batzuk, kartelak, komikiak) ala *mugimenduduna* (mugitzen dena, adibidez, zintzilika jartzen diren eskultura mugikariak eta zinema zein bideozko irudiak), *sekuentziaduna* (denboraren igarotzea irudikatzen dutenak, adibidez, komikia, ipuina, filmak) ala *sekuentziarik gabekoa*.

Maila honetan ere koka daiteke *ikonografia aurreko deskribapena* (Panofsky: 1982) delakoa, hau da, gure esperientzietan oinarrituz, ikus mezuan agertzen diren forma eta koloreetan egiten dugun objektuen, pertsonen, animalien eta abarren identifikazioa. Ezin ahaztu, ikus mezuan agertzen diren forma eta kolore horiek baldintza historiko zehatz eta aldakorren menpe daudela eta horrek, beraz, identifikatzeko prozesuan eragina izango duela.

Ikus mezuaren adierazpenaren plano deskribatzeko eta geroko interpretazioari oinarri sendoa eman ahal izateko, ikus mezu antolatze erabiliak izan diren kodeak ere kontuan hartu behar dira. Adibidez, *kode espaziala* (espazio formatuaren forma eta neurria, enkoadratze mota), *ikus osagaien erabilpena* (ehundura, lerro, forma, argia *-argiaren kodea-* eta koloreen erabilpena *-kode kromatikoa-*), *erlazio-kodea* (konposizioaren ezaugarriak). Bi dimentsioko ikus mezuetan *kode grafikoak*, hau da, erabili diren tresna teknikoek edo ikus baliabideek sortutako ezaugarri grafikoak, aztertzen dira.

Ikus mezuaren antolaketa plastikoa aztertzeaz gain, *kode sinbolikoa*², *keinuzkoa* (pertsonaiak, egiten dituzten keinuak...) eta *eszenografikoa* (janzkera, makillajea, agertzen diren objektuak eta abar) ere kontuan izan behar dira.

Konnotazio maila

Euskarri duen denotazioarekiko bigarren hizkuntza bezala definitzen da, denotazioaren aurkakoa da. Mintzaira denotatiboetatik abiatuz, gizarteak konnotazio sistemak garatzen ditu, hau da, bigarren esangura sistemak, batzuetan agerikoak eta beste batzuetan ezkutukoak diren sistemak. Arteak, konnotazio sistema historiko-sozialak garatu ditu beti.

Maila honetan, denotazio mailan deskribatutako alderdi guztietan bigarren esangurak bilatu eta azaldu behar dira. Egiten diren behaketa hauek *analisi ikonografikoa* eta *interpretazio ikonologikoa* (Panofsky: op.cit.) deitzen dira.

Analisi ikonografikoan ikus mezuan agertzen diren motibo piktorikoak, gai eta kontzeptuekin erlazionatzen dira. Hori egin ahal izateko, gaia eta kontzeptu espezifikoekin trebatua izatea beharrezkoa da. Ikus mezuaren esangura konbentzionalak agerian jarri behar dira denotazio mailan egindako deskribapenean oinarrituz.

Interpretazio ikonologikoan balore sinbolikoak eta ideologia-zatiak bilatzen dira, ikus mezuaren esangura estaliak agerian uzteko asmoz. Hori egin ahal izateko, ikus mezuaren testuinguruak ere aztertu behar dira. Autore batzuen ustez (Hadjinicola: 1975), edozein ikus mezu aztertze beharrezkoa da ekoiztua izan den garaian eta gizartearen buruzko datuak biltzea (geografia, ekonomia, politika, kultura, ideologia...) bere esanahi guztiak hobeto interpretatu ahal izateko. Datu horiek ikus mezuaren eta ekoiztua izan den garaiko abagune ideologikoaren arteko erlazioa identifikatzen lagunduko digute, izan ere, ikus mezuek ekoiztuak izan diren gizartearen pentsamoldea islatzen baitute.

Ikus mezuen azterketa baldintza dezaketan faktoreak

Sarritan, ikus mezuak berak irakurketa eta interpretazio ugariak eduki ditzake. Ikus mezuaren irakurketan eragin dezaketan zenbait faktore identifikatuak izan dira. Hauen artean honako hauek aipatuko ditugu:

Ikus mezu mota eta bere ezaugarriak

Teknika eta denotazio mailetan aipatutako alderdi guztiek eragina dute ikus mezuaren interpretazioa egitean. Esan bezala, ikus mezua egiteko erabilitako ikus baliabideak eta batez ere igorleak

² Sinboloak edo zeinu konbentzionalak, kontzeptuak, ideiak eta abar irudikatze gizarte-talde batek adostu eta onartutako zeinuak dira.

erabilitako berezko teknikak ikus mezuaren ezaugarriak baldintzatzen dituzte eta, ondorioz, bere eragina izango dute irakurketa burutzean. Baita espazio-formatuak ere -bere forma eta neurri berezkoekin- edo euskarri motak eta abarrek zerbait adierazten dute beti. Beste aldetik, ikus mezuaren konposizio motak, bere ehundurak, formak, argiztapenak eta koloreak ere informazio desberdinak ematen dituzte hartzailearengan esangura ugari sortaraziz, eta, ondorioz, bere pertzepzio-lana baldintzatuz.

Faktore psikologikoak

Hartzaile bakoitzak *hautemateko gaitasunaren* berariazko garapen maila du eta, ondorioz, ikus mezuari begiratzean egiten duen pertzepzio-lana guztiz pertsonala izango da. Horrek eragina zuzena izango du ikus mezuaren azterketan. Era berean, hartzailearen *behatzeko* eta *hausnartzeko* gaitasunak, bere *gogo-aldarteak* eta *egoera fisikoak* ere eragina izango dute.

Beste aldetik, hartzailearen jarrerak garrantzi handia du. Bi jarrera mota bereiz ditzakegu: *intuitiboa* (hartzaileak ikus mezuari begiratzean ez ditu pentsamendu kontzientearen baliabideak erabiltzen, berezko hautemateko gaitasuna besterik ez du erabiltzen) eta *kontzientea* (hartzaileak bai berezko hautemateko gaitasunaz bai bere pentsamendu kontzienteaz baliatzen da; oinarritzko eskema bat erabiltzen du eta ikus testuaren ulerkuntza osoa lortzeko, ikus mezuan agertzen diren alderdi guztiak aztertzen saiatzen da).

Azkenik, ikus mezua irakurtzeko lana *borondatezkoa* ala *betebeharrekoa* izateak ere irakurketa egiten ari denarengan eragina izango du.

Faktore soziokulturalak

Igorlearen eta hartzailearen *gizarte eta kultur testuinguru*en arteko antzekotasunek eta desberdintasunek ikus mezuaren interpretazioa baldintzatzen dute. Igorleak eta hartzaileak berezko baloreak, ideiak, kontzeptuak eta abar garatzen dituzte eta dakigun bezala, hauen arabera, batak ikus mezua kodetuko du eta besteak deskodetuko du. Beraien unibertso kulturalen arteko desberdintasunak oso handiak direnean, hartzaileak bere intuizioa besterik ez erabiliz eratuko du bere interpretazioa, eta egindako irakurketa igorleak pentsatutako helburuetatik urrun daiteke. Hori ekiditeko igorle eta hartzailearen ezagutza soziokulturalak eta erabilitako kodeak berdinak edo antzekoak izan beharko lirakeke. Hartzaile bakoitzaren unibertso kulturalaren arabera ikus mezu berberaren irakurketa ugari eta haien artean oso desberdinak egin daitezke.

Irakurketaren testuingurua

Ikus mezua hautematen den *uneak* eta *egoerak* eragina izango dute interpretatzeko prozesuan. Ikus mezuaren irakurketa guztiz alda daiteke egoeraren arabera. Adibidez, giro eroso eta lasaia izateak ala deserosoa eta zaratatsua izateak interpretazio desberdinak eragin ditzake.

Era berean, *leku publiko* (kalean, geltokian, dendan...) ala *pribatuan* (etxean, logelan...) egiten denean, interpretazioak desberdinak izan daitezke. Honekin batera, *irakurtzeko distantziak* ere garrantzi handia izango du. Kaletik ibiltzean, urrundik ala hurbildik ikusitako kartel baten pertzepzioa desberdina izango da kasu bakoitzean.

Ikusten ari garen ikus mezuaren *ondoan dauden beste ikus mezuek* ere eragina izan dezakete. Azkenik, irakurtzeko lana *banaka* edo *taldeka* egiteak interpretazio desberdinak emango ditu. Taldeka egindako irakurketak subjektibotasuna murriz dezake.

Bibliografia

Agirre, Imanol (1997).

Ikonoteka baten antolakuntza (I). *Hik Hasi*, 22. zenbakia, 40-42 or.

Ikonoteka baten antolakuntza (II). *Hik Hasi*, 23. zenbakia, 39-42 or.

Aguilera Cerni, Vicente (zuzendaria) (1994). *Arte Modernoaren Hiztegia*. EHUko Argitarapen Zerbitzua.

Alonso, Manuel eta Matilla, Luis (1990). *Imágenes en acción: análisis y práctica de la expresión audiovisual en la escuela activa*. Madril: Akal.

Eco, Umberto (1976). *Tratado de semiótica general*. Bartzelona: Blume.

Gauthier, Guy (1986). *Veinte lecciones sobre la imagen y el sentido*. Madril: Cátedra.

Gubern, Román (1987). *La mirada opulenta*. Bartzelona: Gustavo Gili.

Nicos Hadjinicolau (1975). *Historia del arte y lucha de clases*. Mexiko: Siglo XXI.

Matilla, Luis eta Alonso Manuel (1980). *Imágenes en libertad. Comunicación visual para la escuela activa*. Madril: Nuestra Cultura.

Moles, Abraham (1975). *La comunicación y los mass media*. Bilbo: Mensajero.

Munari, Bruno (1973). *Diseño y comunicación visual*. Bartzelona: Gustavo Gili.

Nafarroako Gobernua (1997). *La publicidad*. Monográfico de educación del consumidor.

Panofsky, Erwin (1982). *Estudios sobre iconología*. Madril: Alianza Universidad.

Preciado, Txema (1989). Zenbait artelan aztertze eskema. *Tantak* (EHUko Hezkuntza Aldizkaria), 1. zenbakia, 107-127 or.

Roda Salinas, F. J. et al. (1988). *Información y comunicación*. Bartzelona: Gustavo Gili.

Ikus mezu desberdinak aztertze proposamenak

Ondorengo orrialdeetan, hiru ikus mezu mota nagusietan sailka daitezkeen ikus mezu desberdinak aztertze eta interpretatzeko eskemak proposatzen dira. Eskema horietan edozein ikus mezu baten azterketa eta interpretazio kontzientea egiteko bildu beharreko datuak antolatzen saiatu gara. Beraz, honako hiru oinarritzko eskemak proposatzen dira:

- *bi eta hiru dimentsioko irudiak aztertze eskema*, testurik gabeko ikus mezuak interpretatzeko proposatzen da, adibidez, koadroak, eskulturak, argazkiak, marrazkiak, ordenadore bidezko irudiak...
- *hitz-irudizko ikus mezuak aztertze eskema*, testua eta irudia uztartzen dituzten ikus mezuak interpretatzeko baliagarria izan daiteke (iragarki inprimatuak ala elektronikoak, kartelak, publizitate-hesiak...)
- *irudi sekuentziak aztertze eskema*, komikiak, fotonobelak, ipuinak, filmak eta ikus-entzunezko iragarkiak interpretatzeko proposatzen da. Eskema orokorrekina batera, eta aztertze lana errazteko asmoz, irudi sekuentziaren datuak jasotzeko taulak eskaintzen dira.

Bi eta hiru dimentsioko irudiak aztertze eskema

1. Irudiaren testuinguruak

- Irudiari buruzko datu orokorrak: data eta irudi mota (marrazkia, pintura, argazkia, eskultura...).
- Irudia ekoiztua izan den gizarte eta garaiari buruzko datuak: testuinguru historiko, geografiko, ekonomiko, soziokultural, politiko eta ideologikoa.
- Ikus mezuaren agertzen den lekuari buruzko datuak (aldizkaria, liburua, erakusketa aretoa, plaza...).
- Irudiaren egileari buruzko datuak.
- Irudiaren helburuak, eduki orokorrak eta hartzaile mota.

2. Irudiaren ezaugarri teknikoak

- Irudia ekoizteko teknika eta prozedurak (marrazkigintza, pintura, argazkigintza, ordenadore bidezko irudia, modelatua, tailua ...).
- Formatua (irudiaren neurria eta forma orokorra).
- Euskarri mota:
 - Bi dimentsioko irudietan: euskarri motari buruzko datuak (mihisea, papera, euskarri informatikoa...).
 - Hiru dimentsioko irudietan: materialari buruzko datuak (egurra, harria, poliester, metala...).

3. Irudiaren deskribapena

- Irudiaren deskribapen objektiboa denotazio mailan.
- Ikus osagaien deskribapena:
 - Bi dimentsioko irudietan: hiru dimentsioko espazioa irudikatze sistema (formen arteko gain-jartzeen bidez, perspektiba...).
 - Bi dimentsioko zein hiru dimentsioko irudietan: ehundura, lerroa, forma, argiztapena, kolorea.
- Konposizioaren analisia:
 - Bi dimentsioko irudietan:
 - Irudiaren enkoadratze edo plano mota (PON, PO, OP, PA, PE, LP, LPH, ZP).
 - Kameraren kokapena.
 - Bi dimentsioko zein hiru dimentsioko irudietan:
 - Ikus pisuen banaketa.
 - Pertzepzio taldekatzeak (forma, neurria, kolorea, orientabidea eta kokapenaren arabera).
 - Oreka mota: estatikoa ala dinamikoa.
 - Ikus erritmo mota (iraunkorra, simetria, askea).
 - Konposizio mota: estatikoa ala dinamikoa.
- Irudiaren komunikazio ezaugarriak eta funtzioak
 - Irudiaren komunikazio ezaugarriak (ikonotasun ala abstrakzio maila, monosemia-polisemia).
 - Irudiaren komunikazio funtzioak (informatzailea, limurtzailea, estetikoa, didaktikoa).

4. Irudiaren interpretazioa

- Irudiaren konnotazioak: irudiaren deskribapenean oinarrituz, irudiak igortzen dituen ideia eta baloreen azalpena.
- Irudiaren konnotazioen eta bere garaiko abagune ideologikoen arteko erlazioa.

5. Irudiari buruzko balorazioa

- Aurreko ataletan jasotako datuei buruzko balorazio pertsonala.

Hitz-irudizko ikus mezuak aztertzeko eskema (iragarki inprimatuak eta elektronikoak, kartelak, publizitate-hesiak)

1. Ikus mezuaren testuinguruak

- Ikus mezuari buruzko datu orokorrak: data, teknika, formatua (forma eta neurria) eta euskarri mota (paper mota, euskarri informatikoa...).
- Ikus mezua ekoiztua izan den gizarte eta garaiari buruzko datuak: testuinguru historiko, geografiko, ekonomiko, soziokultural, politiko eta ideologikoa.
- Ikus mezua agertzen den lekuari buruzko datuak (aldizkari, liburu, areto, plaza eta abarrei buruzko datuak).
- Ikus mezua enkargatu duen enpresa ala erakundeari buruzko datuak.
- Publizitate- ala propaganda-kanpainari buruzko datuak: egileak, helburuak, edukiak, datak, faseak, publizitate-euskarriak.
- Ikus mezuaren egileari buruzko datuak.
- Ikus mezuaren helburuak, eduki orokorrak eta hartzaile mota.
- Iragartzen den produktuari / ideari buruzko datuak³.

2. Ikus mezuaren deskribapena

- Ikus mezuaren deskribapen objektibo orokorra denotazio mailan.
- Irudiaren deskribapena
 - Irudiaren deskribapen objektiboa denotazio mailan.
 - Irudiaren ezaugarri teknikoak: irudia ekoizteko erabilitako ikus baliabidea (marrazkigintza, argazkigintza, ordenadore bidezko irudia...), irudiaren neurria, irudiaren kokapena espazio-formatuan.
 - Irudiaren enkadratze edo plano mota: PON, PO, OP, PA, PE, LP, LPH ala ZP.
 - Irudia aurkezteko ikus puntua edo angelua: pikatua, kontrapikatua ala zenitala.
 - Hiru dimentsioko espazioa irudikatze sistema: formen arteko gainjartzeen bidez ala perspektibaren bidez.
 - Ikus osagaien deskribapena: irudiaren ehundura, lerroa, forma, argiztapena eta kolorea.
 - Irudiaren komunikazio ezaugarriak: ikonotasuna-abstrakzioa eta monosemia-polisemia.
- Testuaren deskribapena
 - Testu motak: testu nagusia eta menpeko testuak.
 - Tipografia: tipografia mota (astamakilazkoa, erremateduna, kaligrafiakoa), letren neurriak, koloreak eta irakurgarritasun maila.
 - Testuaren komunikazio ezaugarriak: monosemia-polisemia.
- Ikus mezuaren konposizioaren deskribapena
 - Ikus pisuen banaketa: irudiaren eta testuen kokapenak espazio formatuan.
 - Pertzepzio taldekatzeak: forma, neurri, kolore, orientabide ala kokapenaren arabera.
 - Oreka mota: estatikoa ala dinamikoa.
 - Erritmo mota: iraunkorra, simetria ala askea.
 - Konposizio mota: estatikoa ala dinamikoa.
- Ikus mezuaren komunikazio ezaugarriak eta funtzioak
 - Irudia eta testuaren arteko artikulazio mota monosemia eta polisemia ezaugarrien arabera.
 - Irudia eta testuaren funtzioak edukiaren transmisioari dagokionez: irudia ilustrazio gisa, irudia oinarritzko edukia, irudia eta testuaren arteko osagarritasuna.
 - Ikus mezuaren funtzioak: ekonomikoa, informatzailea, limurtzailea (erabiltzen diren prozedura limurtzaileak zehaztu), estetikoa, didaktikoa.

3. Ikus mezuaren interpretazioa

- Irudiaren konnotazioak: irudiaren deskribapenean oinarrituz, irudiak igortzen dituen ideia eta baloreen azalpena.
- Testuaren konnotazioak: testuaren deskribapenean oinarrituz, testuak igortzen dituen ideia eta baloreen azalpena.
- Ikus mezuaren konnotazio orokorren eta bere garaiko abagune ideologikoaren arteko erlazioa.

4. Ikus mezuari buruzko balorazioa

- Aurreko ataletan jasotako datuei buruzko balorazio pertsonala.

³ - *Publizitateko* ikus mezua denean, produktu mota, produktuaren funtzioa, prezioa, erosle mota, eta ezaugarri material zein formalen deskribapena egiten da (zein materialez eginda dagoen, neurriak, ehundurak, formak, koloreak...).

- *Propagandako* iragarkietan eta karteletan, planteatzen duten edukiaren inguruko azalpenak jaso daitezke (adibidez, edukiaren jatorri soziokulturala, politikoa, ideologikoa...).

Irudi sekuentziak aztertze eskema

Eskema honi jarraituz, irudi sekuentzia desberdinak azter daitezke: alde batetik, *ikus-entzunezko mezuak* (marrazki bizidunak, iragarkiak eta filmak) eta bestetik, *irudi sekuentzia finkoak* (komikiak, fotonobelak, ipuinak...). Azken hauek aztertze -logikoa denez- ez ditugu kontuan izango eskema honetan agertzen diren ikus-entzunezko mezuak aztertze zenbait datu: kamera geldia, iraungipenak, kameraren mugimenduak, lengoia mintzatua eta musika zein soinu efektuak.

1. Irudi sekuentziaren testuinguruak

- Ikus mezuari buruzko datu orokorrak:
 - Ikus-entzunezko mezuetan: telebista katea, emisio eguna, ordua eta programa eta iraupena.
 - Irudi sekuentzia finkoetan: formatua, paper mota, orrialde kopurua, argitalpenaren datuak (egileak, urtea, hiria, argitaletxea).
- Irudi sekuentzia ekoiztua izan den gizarte eta garaiari buruzko datuak: testuinguru historiko, geografiko, ekonomiko, soziokultural, politiko eta ideologikoa.
- Irudi sekuentziaren egileei buruzko datuak.
- Irudi sekuentziaren helburuak, eduki orokorrak eta hartzaile mota.

2. Irudi sekuentziaren deskribapena

- Sinopsia: argumentuaren laburpena
- Narrazioaren egitura⁴.
 - Narrazio-unitateen antolaketa orokorra: sekuentzien, eszenen zein planoen banaketa eta kopuruak.
 - Espazio-denborazko konbentzioak: narrazio mota (lineala ala paraleloa), lengoia eliptikoa (elipsiak), flash back eta flash forward, ralenti, kamera geldia, raccord (planoen arteko ikus egokitapena), iraungipenak, kameraren mugimenduak (panoramikak, travellingak), off-soinua⁵.
 - Irudi sekuentziaren muntai mota: ohikoa ala analitikoa.
- Irudien deskribapena
 - Eszenatokiaren eta pertsonaien deskribapen orokorra denotazio mailan.
 - Plano edo enkoadratze motak: PON, PO, OP, PA, PE, LP, LPH ala ZP.
 - Kameraren kokapena: angelu pikatua, kontrapikatua ala zenitala.
 - Hiru dimentsioko espazioa irudikatze sistema: formen arteko gainjartzeen bidez ala perspektibaren bidez.
 - Ikus osagaien deskribapena: ehundurak, lerroak, formak, argiztapena eta koloreak.
 - Planoen konposizioen deskribapena:
 - Ikus pisuen banaketa: irudiaren eta testuen kokapenak espazio formatuan.
 - Pertzepzio taldekatzeak: forma, neurri, kolore, orientabide ala kokapenaren arabera.
 - Oreka mota: estatikoa ala dinamikoa.
 - Erritmo mota: iraunkorra, simetria ala askea.
 - Konposizio mota: estatikoa ala dinamikoa.
 - Irudien komunikazio ezaugarriak: ikonotasuna / abstrakzioa, monosemia / polisemia.
- Hitzeko lengoaiaren deskribapena
 - Lengoia idatzia eta mintzatua: testu motak, sintaxia, hiztegia, irudi erretorikoak, intonazioa...
 - Lengoia idatziaren tipografia: tipografia mota (astamakilazkoa, erremateduna, kaligrafiakoa), letren neurriak, koloreak eta irakurgarritasun maila.
 - Hitzeko lengoaiaren komunikazio ezaugarriak: informatiboa, limurtzailea, estetikoa, didaktikoa...
- Musika eta soinu efektuen deskribapena
 - Musika mota (estiloa) eta musika tresnak.
 - Soinu efektuak.
- Irudi sekuentziaren komunikazio ezaugarriak eta funtzioak:
 - Irudia eta testuaren arteko artikulazio mota monosemia eta polisemia ezaugarrien arabera.
 - Irudia eta testuaren funtzioak edukiaren transmisioari dagokionez: irudia ilustrazio gisa, irudia oinarriko edukia, irudia eta testuaren arteko osagarritasuna.
 - Irudi sekuentziaren funtzioak: ekonomikoa, informatzailea, limurtzailea (erabiltzen diren prozedura limurtzaileak zehaztu), estetikoa, didaktikoa.

3. Irudi sekuentziaren konnotazioak

- Narrazioaren egiturak sortzen dituen konnotazioak.
- Irudien konnotazioak: eszenatokiak eta pertsonaiek igortzen dituzten ideiak eta baloreak.
- Hitzeko lengoaiaren eta tipografiaren konnotazioak: hitzeko lengoaiak eta tipografiak igortzen dituzten ideiak eta baloreak
- Musika eta soinu efektuen konnotazioak: musikak eta soinu efektuek igortzen dituen ideiak eta baloreak.

4. Irudi sekuentziari buruzko balorazioa: Aurreko ataletan jasotako datuei buruzko balorazio pertsonala.

⁴ Narrazioaren egituraren eta irudien deskribapenak egiteko 7-10 orrialdetan agertzen diren taulak erabiltzeak datuak jasotzeko lana erraz dezake.

⁵ Irudi sekuentzia finkoetan, off-testuen agerpena aztertzen da, hau da, bineta edo ilustrazioan agertzen diren *testuen iturria erakusten ez denean* "off-testua" dagoela esaten da (adibidez, pertsonaia batek esaten duena binetan edo ilustrazioan idatzita agertzen da baina pertsonaia ez da agertzen).

IKUS-ENTZUNEZKO MEZUEI BURUZKO DATUAK JASOTZEKO TAULA

Ikus-entzunezko mota:

Izenburua:

Sekuentzia zbk.:

Eszena zbk.:

Eszenaren izenburua:

- Hauetako errektangelu bakoitzean plano bakoitzaren marrazki eskematikoa edo fotokopia jarri behar da.
- Plano bakoitzaren azpian honako datu hauek idatzi behar dira: plano mota, angelua, kameraren mugimenduak, narrazio paraleloa, elipsia, flash back / flash forward, ralenti, kamera geldia, raccord eza, iraungipena, off-soinua.

	irudia	soinua	
	ekintza dramatikoa	hitzezko lengoaia	musika / soinu efektuak
d e n o t a z i o a			
k o n n o t a z i o a			

IRUDI SEKUENTZIA FINKOEI BURUZKO DATUAK JASOTZEKO TAULA

Irudi sekuentzia finko mota:

Izenburua:

Sekuentzia zbk.:

Eszena zbk.:

Eszenaren izenburua:

- Hauetako errektangelu bakoitzean plano bakoitzaren marrazki eskematikoa edo fotokopia jarri behar da.
- Plano bakoitzaren azpian honako datu hauek idatzi behar dira: plano mota, angelua, narrazio paraleloa, elipsia, flash back / flash forward, raccord eza.

		irudia	testua		
		ekintza dramatikoa	gaia eta testu mota	sintaxia	letra mota
d e n o t a z i o a					
k o n n o t a z i o a					

ESZENATOKIAK AZTERTZEKO TAULA

Deskribapen orokorra (naturala/artifiziala; itxia/irekia):

		paisaia, animaliak, landareak	eraikuntzak	objektuak	aparatu teknikoak
des krib ape na den otaz io mail an	ikus osagaien deskribapena: - ehundurak - lerroak - formak - koloreak				
	- argiztapena: - argi zuzena - zehaztugabea				
	enkuadratze mota: - PON, PO, OP, PA, PE, LP, LPH ala ZP				
	kameraren kokapena: - pikatua - kontrapikatua - zenitala				
	kameraren mugimenduak: -panoramikak -travelling				
	efektu bereziak				
interpr etazio a konno tazio mailan	ideiak eta baloreak erlijiosoak, etikoak, politikoak, filosofikoak...				
	eszenatokiari buruzko interpretazio orokorra				

PERTSONAIK AZTERTZEKO TAULA

Deskribapen orokorra (sexua, adina eta gorpuzkera):

		gorputza	makillajea eta jantziak	keinuak, mugimenduak eta ekintzak	hizkuntza: sintaxia eta edukia
deskribapena den otazio mailan	aspektu formalen deskribapena: -ehundurak -lerroak -formak -koloreak				
	- argiztapena: -argi zuzena -zehaztugabea				
	enkoadratze mota: - PON, PO, OP, PA, PE, LP, LPH ala ZP				
	kameraren kokapena: -pikatua -kontrapikatua -zenitala				
	kameraren mugimenduak -panoramikak -travelling				
	efektu bereziak				
interpretazioa konnotazio mailan	ideiak eta baloreak erlijiosoak, etikoak, politikoak, filosofikoak...				
	pertsonaiari buruzko interpretazio orokorra				

IKUS MEZUEN INTERPRETAZIOA HAUR HEZKUNTZAN ETA LEHEN HEZKUNTZAN

Irudiak egiteko gaitasuna garatzeaz gain, ezinbestekotzat jotzen dugu ikus mezuak interpretatzeko gaitasuna ere garatzea; horretarako, Haur hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako haurrei ikus mezuak interpretatzeko baliabideak irakatsi behar zaizkie. Gai honetan aurkeztu diren ikus mezuak aztertzeko eskema zehatzez gain, *ikus mezuak interpretatzeko* zenbait jarduera mota ere jaso nahi izan ditugu, baliagarriak izan daitezkeelako ikus mezuen interpretazioaren inguruko kontzeptuak prozedura desberdinen bidez ulertarazteko Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrei.

Jarduera mota bakoitzean zehaztuko da banaka ala taldeka burutzeko aproposa den eta era berean zeintzuk diren etapa, maila edota ziklo egokienak. Etapa eta maila zehazten ez direnean, etapa osoan zehar erabil daitekeen jarduera dela ulertu behar da.

Proposatzen diren jarduera motak kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak ikasteko zein ebaluatzeko erabil daitezke.

1. Irudiak multzokatu, sailkatu, haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontuan hartuz honako alderdi hauei dagokienez: irudiaren gaia, ehundura, lerroa, formak, argiztapena, kolorea, konposizioa, plastika eta ikus baliabide zein teknika (marrazkigintza, pintura, argazkigintza, diseinua, bideoa, zinegintza, eskultura, ordenadore bidezko ikus mezuak, arte elektronikoa...), irudiaren ikonotasun ala abstrakzio maila, irudiaren funtzioak, irudiaren jatorri soziokulturala, irudigileak...
Banakako eta taldekako lana. HH eta LH.
2. Irudi eta ikusbide desberdinez osatutako artxibo bat antolatu (ikonoteka) irizpide desberdinen arabera: irudiaren gaia, ehundura, lerroa, formak, argiztapena, kolorea, konposizioa, plastika eta ikus baliabide zein teknika (marrazkigintza, pintura, argazkigintza, diseinua, bideoa, zinegintza, eskultura, ordenadore bidezko ikus mezuak, arte elektronikoa...), irudiaren ikonotasun ala abstrakzio maila, irudiaren funtzioak, irudiaren jatorri soziokulturala, irudigileak...
Taldekako lana. HH eta LH.
3. Irudien analisiak egin:
 - irudi baten ikus osagaiak eta hauen arteko erlazioak behatuz.
 - irudiaren deskribapen objektiboak eginez.
 - irudiak igortzen dituen ideiak eta baloreak bilatu eta interpretatuz.*Banakako eta taldekako lanak. HH eta LH.*
4. Puzzleak sortu eta osatu.
Banakako eta taldekako lana. HH eta LH.
5. Irudi batean elementuren bat bilatu.
Banakako eta taldekako lana. HH eta LH.
6. Irudi bati falta zaion zati bat osatu.
Banakako lana. HH eta LH.
7. Irudiak egiteko erabiltzen diren ikus baliabideei buruz hitz egin (marrazkigintza, pintura, argazkigintza, diseinua, bideoa, zinegintza, eskultura, ordenadore bidezko ikus mezuak, arte elektronikoa...).
Taldekako lana. HHko 3. maila eta LH.
8. Irudi bat testuinguru desberdinetan kokatu esangura desberdinak komunikatzeko (fotomuntaketa).
Banakako eta taldekako lana. HHko 3. maila eta LH.

9. Irudi baten enkoadratzea aldatu irudiaren jatorrizko esangura aldatzeko:

- Aldizkari eta egunkarietan irudi bat hautatu.
- Folio batean leihotxo errektangeluar bat moztu.
- Folioa irudiaren gainean jarri eta irekitako leihotxotik begiratzuz irudiaren zati bat hautatu, irudiaren jatorrizko esangura aldatzen dela ikusi arte.
- Lortutakoan, leihotxo duen folioa eta irudia alde bakar batetik itsatsi koaderno moduan (grapatuz edo zeloz itsatsiz), irudiaren jatorrizko esangura eta enkoadratze berriak ematen diona alderatu ahal izateko.

Banakako eta taldekako lana. LH.

10. Behaketaren bidez, irudiak egiteko erabiltzen diren plastika eta ikus baliabide desberdinen azterketak egin (marrazkigintza, pintura, argazkigintza, diseinua, bideoa, zinegintza, eskultura, ordenadore bidezko ikus mezuak, arte elektronikoa...). Adibidez, pelikula, koadro, kartela, iragarkia, kromoak eta abar eraman daitezke ikasgelara nola dauden eginda aztertzeko, haien artean alderatzeko... Ikus baliabide bati buruzko informazioa bilatu eta ordenatu (informazio historikoa, teknikoa...). Ikus baliabide bat erabiltzeko teknika desberdinak aztertu eta alderatu (adibidez, argazki mota desberdinak aztertuz...).

Taldekako lana. LHko 3. zikloa.

11. Euskal Herriko eta beste herrialdeetako ikus kulturari buruzko analisiak egin.

Taldekako lana. LHko 3. zikloa.

Ikus mezuen interpretazioa Haur Hezkuntzan: jarduerak planifikatzeko orientabideak

jarduerak	materialak, tresnak eta euskarriak	helburuak eta edukiak	
		HHko 1. maila	HHko 2. eta 3. maila
<p><i>Ikus mezuak denotazio mailan deskribatu eta konnotazio mailan interpretatu.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Irudi eta ikusbide desberdinez osatutako artxi- bo bat antolatu. - Irudiak sailkatu haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontuan hartuz. - Irudiaren ikus osagaiak eta hauen arteko erla- zioak behatuz deskriba- pen objektiboak egin. - Irudiak egiteko erabil- tzen diren ikusbideei buruz hitz egin. - Puzzleak sortu eta osatu. - Irudi batean elementu- ren bat bilatu. - Irudiak igortzen dituen ideiak eta baloreak bilatu eta interpretatu (4-5 urte). - Irudi bati falta zaion zati bat osatu (4-5 urte). - Irudi baten enkoadra- tzea aldatu esangura aldatzeko (5 urte). - Irudi bat testuinguru desberdinetan kokatu esangura desberdinak ko- munikatzeko (fotomun- taketa) (5 urte). - Behaketaren bidez, ikusbide desberdinen azterketa sinpleak egin (5 urte). 	<p>Materialak eta tresnak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bi edo hiru dimentsioko ikus mezuak. - Ikonotasun / abstrakzio maila desberdinak dituz- ten irudiak. Irudi monose- mikoak eta polisemikoak. - Euskal Herriko zein bes- te herrialdeetako irudigi- leek ikusbide desberdinen bidez egindako irudiak: argazkiak, marrazkiak, koadroak eta grabatuak (edo hauen erreproduk- zioak), kartelak, diaposi- tibak, bideoak, ordenado- re bidezko ikus mezuak, eskulturak... - Hurrek egindako plas- tika lanak. - Euskarri desberdinetan agertzen diren irudiak: e- gunkari, aldizkari, komiki, ipuin eta liburuetako irudiak ... - Puzzleak (erositakoak edo hurrek beraiek egindakoak). - Marrazteko eta margo- tzeako tresnak. - Collagea egiteko tres- nak. <p>Euskarriak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Neurri eta kolore des- berdinetako paperak. - Karpetak, kutxak. - Kartoi meheak. 	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikus pertzepzioa eta ikus oroimena garatzea. - Irudia eta errealtatearen arteko desberdintasunak hautematea. - Irudien deskribapenak eta oinarritzko interpre- tazioak egitea. - Irudi mota batzuk eta oinarritzko ikusbideak identifikatzea eta bereiz- tea. <p>Edukiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - (K): Irudiaren deskri- bapena: ikus osagaiak, erlazio espazial topologi- koak, proportzioak, ikus erritmoak, taldekatzeak. - (K): Irudien esangurak: ehundura, lerro, forma, argiztapen, kolore eta konposizio mota desber- dinen esangurak. Irudi desberdinen esangurak denotazio eta konnotazio mailan. - (K): Irudiaren oinarritzko konbentzioak: artifizio teknikoak (pintzeladak, trazuak...), enkoadratzea. - (K): Oinarritzko ikusbi- deen ezaugarriak eta haien arteko desberdin- tasunak. - (P): Objektu errearen eta irudikatutakoaren ar- teko erlazioen behaketa. - (P): Irudiak deskriba- tzeko eta interpretatzeko prozedura. - (P): Irudi eta oinarritzko ikusbideen behaketa (ma- rrazkigintza, pintura, ar- gazkigintza, bideoa...). 	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikus pertzepzioa eta ikus oroimena garatzea. - Irudia eta errealtatea bereiztea. - Irudien deskribapenak eta interpretazioak egitea. - Irudiaren konbentzio batzuk ezagutzea. - Irudi mota zein ikusbide desberdinak identifikatzea eta bereiztea. <p>Edukiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - (K): Irudiaren deskriba- pena: ikus osagaiak, erlazio espazial topologi- koak, hiru dimentsioko espazioa irudikatzeako sis- temak, proportzioak, ikus erritmoak, taldekatzeak. - (K): Irudien esangurak: ehundura, lerro, forma, argiztapen, kolore eta konposizio mota desber- dinen esangurak. Irudi desberdinen esangurak denotazio eta konnotazio mailan. - (K): Irudiaren oinarritzko konbentzioak: artifizio tek- nikoak, enkoadratzea, ikus puntua, argiztapena. - (K): Irudiaren komuni- kazio ezaugarriak: ikono- tasuna/abstrakzioa. - (K): Ikusbide desberdi- nen ezaugarriak eta haien arteko desberdintasunak. Ikusbideen arteko nahas- ketak. - (P): Objektu errearen eta irudikatutakoaren ar- teko erlazioen behaketa. - (P): Irudiak deskriba- tzeko eta interpretatzeko prozedura. - (P): Fotomuntaketak egiteko oinarritzko proze- durak. - (P): Irudi eta ikusbide desberdinen behaketa.

Ikus mezuen interpretazioa Lehen Hezkuntzan: jarduerak planifikatzeko orientabideak

jarduerak	materialak, tresnak eta euskarriak	helburuak eta edukiak	
		1. zikloa	2. eta 3. zikloak
<p><i>Ikus mezuak denotazio mailan deskribatu eta konnotazio mailan interpretatu.</i></p> <p>- Irudien artxibo bat antolatatu irizpide desberdinen arabera.</p> <p>- Irudiak egiteko erabiltzen diren ikusbideei buruz hitz egin.</p> <p>- Irudiaren ikus osagaiak eta hauen arteko erlazioak behatuz deskribapen objektiboak egin.</p> <p>- Irudiak igortzen dituen ideiak eta baloreak bilatu eta interpretatu.</p> <p>- Irudiak edo ikusbideak multzokatu haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontuan hartuz.</p> <p>- Behaketaren bidez eta informazioa bilduz, ikusbide desberdinen azterketak egin (3. zikloa).</p> <p>- Euskal Herriko eta beste herrialdeetako ikus kulturari buruzko analisiak egin (3. zikloa).</p>	<p>Materialak eta tresnak</p> <p>- Bi eta hiru dimentsioko ikus mezuak.</p> <p>- Ikonotasun / abstrakzio maila desberdinak dituzten irudiak. Irudi monosemikoak eta polisemikoak.</p> <p>- Euskal Herriko zein beste herrialdeetako irudigileek ikusbide desberdinen bidez egindako irudiak: argazkiak, marrazkiak, koadroak, grabatuak (edo hauen erreproduktzioak), kartelak, iragarkiak diapositibak, bideoak, ordenadore bidezko irudiak, eskulturak...</p> <p>- Haurrek egindako plastika lanak...</p> <p>- Euskarri desberdinetan agertzen diren irudiak: egunkari, aldizkari, komiki, ipuin eta liburu etako irudiak...</p> <p>- Marrazteko eta margozteko tresnak.</p> <p>- Collagea egiteko tresnak.</p> <p>Euskarriak</p> <p>- Neurri eta kolore desberdinetako paperak.</p> <p>- Karpetak, kutxak.</p> <p>- Erakusketa-panelak.</p> <p>- Kartoi meheak.</p>	<p>Helburuak</p> <p>- Ikus pertzepzioa eta ikus oroimena garatzea.</p> <p>- Irudia eta errealtatearen arteko desberdintasunei buruz hausnartzea.</p> <p>- Ikus mezuen eta ikusbideen deskribapenak zein interpretazioak egiteko oinarrizko kontzeptuak eta prozedurak ezagutzea eta erabiltzea.</p> <p>- Ikus mezu zein ikusbide desberdinak identifikatzea, bereiztea.</p> <p>Edukiak</p> <p>- (K): Irudiaren deskribapena: irudia ekoiztu den testuinguru soziokulturala, irudiaren egilea, teknika; irudiaren ikus osagaiak, erlazio espazial topologikoak, hiru dimentsioko espazioa irudikatze sistemak, proportzioak, ikus erritmoak, taldekatzeak; ikonotasun / abstrakzio maila.</p> <p>- (K): Irudiaren esangurak: ehundura, lerro, forma, argiztapen, kolore eta konposizio mota desberdinen esangurak. Irudi desberdinen esangurak denotazio eta konnotazio mailan.</p> <p>- (K): Irudiaren oinarrizko kontzeptuak: artifizio teknikoak (pintzeladak, trazurak...), enkoadratzea.</p> <p>- (K): Oinarrizko ikusbideen ezaugarriak eta haien arteko desberdintasunak.</p> <p>- (P): Irudi ikonikoak direnean, erreferente errealean eta irudikatutakoaren arteko erlazioen behaketa.</p> <p>- (P): Irudiak deskribatzeko eta interpretatzeko prozedura.</p> <p>- (P): Irudi eta oinarrizko ikusbideen behaketa eta analisia.</p>	<p>Helburuak</p> <p>- Ikus pertzepzioa eta ikus oroimena garatzea.</p> <p>- Irudiaren oinarrizko kontzeptuak ezagutzea.</p> <p>- Ikus mezuen eta ikusbideen deskribapenak zein interpretazioak egiteko oinarrizko kontzeptuak eta prozedurak ezagutzea eta erabiltzea.</p> <p>- Ikus mezu zein ikusbide desberdinak ezagutzea.</p> <p>Edukiak</p> <p>- (K): Irudiaren deskribapena: irudia ekoiztu den testuinguru soziokulturala, irudiaren egilea, teknika; irudiaren ikus osagaiak, erlazio espazial topologikoak, hiru dimentsioko espazioa irudikatze sistemak, proportzioak, ikus erritmoak, taldekatzeak; komunikazio ezaugarriak, funtzioak.</p> <p>- (K): Irudien esangurak: ehundura, lerro, forma, argiztapen, kolore eta konposizio mota desberdinen esangurak. Irudi desberdinen esangurak denotazio eta konnotazio mailan.</p> <p>- (K): Irudiaren kontzeptuak: artifizio teknikoak, enkoadratzea, ikus puntua, argiztapena, trukajeak.</p> <p>- (K): Ikusbide desberdinen ezaugarriak eta haien arteko desberdintasunak. Ikusbideen arteko nahasketak.</p> <p>- (P): Irudi ikonikoak direnean, erreferente errealean eta irudikatutakoaren arteko erlazioen behaketa.</p> <p>- (P): Irudiak deskribatzeko eta interpretatzeko prozedura.</p> <p>- (P): Irudi eta ikusbide desberdinen behaketa eta analisia.</p>